

**III. ATALA****EUSKAL HERRIKO AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOA****Lan eta Enplegu Saila**

Ebazpena, 2022ko urriaren 7koa Bizkaiko Lan eta Gizarte Segurantzako Ordezkariek emanda. Honen bitartez, eta Derioko Udalarari dagokionez, udal horretan 2022ko irailaren 15eko ebazpena aldatzen da, 2023. urterako Bizkaiko Lurralde Historikoko tokiko festen egitaraua eta orokorra ezartzen zuena, udalerrri horretarako tokiko jaiegunaren izendapenean egindako akatsagatik (gaztelaniazko testuan) eta Izurtza udalerriko tokiko jaiaren gaztelaniazko izena zuzendu dena.

Aurrekariak

Bizkaiko Lan eta Gizarte Segurantzako Ordezkariek 2022ko irailaren 15eko Ebazpenean (Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren 184. zenbakian argitaratua, 2022ko irailaren 27an, asteartea) onartu egin zen 2023rako Bizkaiko Lurralde Historikoko tokiko festen egitaraua eta orokorra. Ebazpen horrek Derioko udalerriko jaieguna maiatzaren 16an ezartzen du (gaztelaniazko testuan). Era berean, ebazpen horren gaztelaniazko testuan, akats baten ondorioz, «Nuestra Señora de Erdozia» eguna Izurtzako udalerriko jai lokal izendatzen da.

Maiatzaren 16a Derioko udalerriko tokiko jaiegun izendatzean akatsa aurkituenez (gaztelaniazko testuan), udalerrri horren 2023ko jaieguna maiatzaren 15ekoa dela deklaratu da (San Isidro Nekazari eguna), udal horrek lan-agintaritzari 2022ko ekainaren 16an jakinarazi zionez. Bestalde, akatsa zuzendu da Izurtzako herriko jaiaren izendapenean, eta «Nuestra Señora de Erdozia» esan behar da gaztelaniazko testuan.

Zuzenbideko oinarriak

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 109.2 artikuluan xedatutakoa aplikatuz, «administrazio publikoek, beren kabuz edo interesdunek eskaturik, edozein unetan zuzendu ditzakete beren egintzetako errakuntza materialak, egitezkoak edo aritmetikoak».

Horren ondorioz, hau

ERABAKITZEN DUT:

Bizkaiko Lan eta Gizarte Segurantzako ordezkariek 2022ko irailaren 15eko Ebazpena aldatzea, honela:

- 1) 2023rako, Derioko udalerriko tokiko jaieguna maiatzaren 15a izango da (San Isidro Labrador), eta 2022ko irailaren 15eko Ebazpenaren gaztelaniazko testua zuzenduko da.
- 2) 2022ko irailaren 15eko Ebazpenaren Izurtzako herriko jaiaren gaztelaniazko testua zuzentzea, eta «irailaren 8a (Nuestra Señora de Erdozia)» esatea.

Bilbon, 2022ko urriaren 7an.—Bizkaiko Lan eta Enplegu Sailaren Lan eta Gizarte Segurantzako Lurralde-Ordezkaria, Verónica Fernández Fernández